

Funtsezko elkarteak (Hotela)

- Beharko genituen hornitzaileak, hotel bateko pertsonak edo hotel batean gure zerbitzua sartzeko aukera izatea izango zen. Hotel baten barruan gure lokala jartzea aukera oso ona izango litzateke, hotel batetara jende gehiago joaten delako. Gure bezeroak eta hotel batek dauzkan bezeroak oso antzekoak dira. Beraz, bai bezeroentzat eta bai guretzat (bezero gehiago izateko) aukera oso ona izango litzateke aukera hau emateko.
- Lehiakideen arteko aliantza estrategikoa izango da.
- Aukeratu dugun aliantza mota honen bidez, jarduera aurrera eramateko beharrezkoak dituzten baliabideen eskuragarritasuna bermatzea lortzen da. Enpresa batek aliantzak sortu ahal ditu beste enpresa batzuekin eta hori egiteko arrazoiak nagusiak hauek dira: Negozio-eredua optimizatzea, arriskuak murriztea eta baliabideak eskuratzea.
- Eragile edo jardule bakoitzaren rolari haria hartuz, hurrengoa esan behar dugu: Gure taldea 4 pertsonaz osatuta dago eta bakoitza gauza batean espezializatua dago, beraz enpresan egingo dituen rolak horren arabera sailkatuta egongo dira. Hasteko, administratzailea eta logistikataz arduratuko den pertsona bat izango dugu, fakturak, kontuak eta salmenta guztiak eramango dituen pertsona, hau ekonominan espezializatua egongo da. Jerente edo zuzendaria, enpresan gertatzen ari den guztiaz arduratzen den pertsona, eta langileak kudeatzen dakiena. Saltzailea edo lokalean bertan egongo den zerbitzailea, honen ezaugarriak, pertsona lagunkoia izatea eta bere adeitasunagatik bezeroak erakartzea dira. Ez esateagatik, kontuak ondo eramaten eta ordenatua izaten jakin behar duela, bai diru eta bai denborarekin arazorik edo nahasmendurik ez izateko. Azkenik, komunikazio eta publizitateaz arduratuko den pertsona. Uste dugu hau oso sail garrantzitsu bat dela, gaur egun publizitateak zati handi bat okupatzen duelako geure gizartean. Komunikazio eta publizitateari esker, bezero askorengana iristeko modua ikusten dugulako.